

## **BALIO PROPOSAMENA**

- **Ze behar edo arazo konpontzen duzue?**

Alde batetik, nahi duenak apunteak eskuratzeko aukera izango du, arlo eta kategoria desberdinetan banatuta. Bertan institutuko, graduetako, oposizioetako zein unibertsitateko informazio ugari aurki daiteke.

Irakurketa automatikoa egiteko aukera ere badago. Horretarako, behar dugun gauza bakarra kamara daukan aparailu bat da.

- **Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?**

Gure aplikazioa dohainik da, baina premium aukera daukagu. Bertan iragarki gabe eta aukera bereziak erabiliz nabigatu ahal izango dute bezeroek.

Aukera berezi horien artean, bezeroek nahi dituzten dokumentuak editatu eta manipulatu ditzakete, edozein momentutan.

Bestalde, eguneratzeak egonez gero, bezero hauek besteek baino lehenago disfrutatu ahal izango dituzte.